

LOKALISMORAKO NAZIOARTEKO ELKARTASUNA

Lokalismorako Nazioarteko Elkartasuna (International Alliance for Localization, IAL) kultura anitzeko pentsalari, aktibista eta Gobernu Kanpoko Erakundeen (GKE) sare bat da, garapenerako eta aurrerapenerako ikuspen berriak erradikalki ikertzeko lan egiten duena.

Munduan zehar, jendea konturatu da egungo krisiak (hondamendi ekologikoa, ezegonkortasun ekonomikoa, porrota soziala, terrorismoa) gora eta gora ari den kontsumismoaren, finantza-espekulazioaren eta merkataritza askearen mendeko ekonomia globalarekin daudela estu lotuta.

Baina zein da alternatiba?

Erantzuna ekonomiaren lokalismoa dela uste dugu. Beste hitzetan esanda, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko distantziak laburtzea etxeko beharrak asetzeko ekoizpen anitza bultzatuz, esportaziorako ekoizpen espezializatuen ordeztu.

Lokalismoa ez da helmuga, antolatutako aldaketa prozesua baizik: poliki-poliki multinazional herratuei agintea murriztean eta aldi berean eskualdeko askatasuna eraikitzean datza.

Zehatz-mehatz:

- Gure zergak, diru-laguntzak eta araudiak erabili jendearen eta komunitateen beharrak babesteko, korporazio multinazionalenak babestu ordeztu.
- Bankuak eta enpresak lekukoak izan dadila nabarmentzea eta biek benetako kontrol demokratikoa eta muga ekologikoa izatera behartzea.

Ekonomia lokalek gure arteko eta naturarekiko loturak berregiten dituzte, gure osasunerako onak izan ez ezik, biziraupenerako ere funtsezko loturak direnak.

LOKALISMOA: KONPONBIDE BIDERKATZAILE INDARTSUA

Lokalismoak ekonomia errealitatera ekartzen du.

Deribatuen eta zorretan oinarritutako sistema monetarioaren fantasian ez bezala, lokalismoa benetako giza-beharrak asetzeko produktibitatean oinarrituta dago, munduko kulturen eta ekosistemen aniztasun aberatsak errespetatzen dituena.

Lokalismoak gure ingurumenaren gaineko eragina murrizten du.

Ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko distantziak laburtuz, lokalismoak garraioak, bilgarriak eta prozesatzeak arras txikiagotzen ditu. Ondorioz, hondakinak, kutsadura eta berotegi efektuko gasen igortzeak txikiagotzen ditu.

Lokalismoak lanpostu gehiago ematen ditu.

Lokalizatutako ekonomiak giza-lanaren eta sormenaren mende daude gero eta gehiago, eta gero eta gutxiago energia intentsiboko teknologia sistemen mende. Honek, lanpostuen kopurua gehiagotzen du baliabide naturalen erabilera jaisten duen heinean.

Lokalismoak demokrazia indartzen du.

Lokalismoak prezesa demokratikoa suspertzen du, miloika lagunen artean eta enpresa txikien artean botere ekonomikoa eta politikoa eskainiz, korporazio-monopolio bakar batzuei eman ordez.

Lokalismoak komunitatea berreraikitzen du eta ongizatea areagotzen du.

Jardun ekonomikoaren eskala eta erritmoa murrizten den heinean, anonimotasunak aurpegiz aurpegiko harremanak eta naturarekin lotura estuagoak sortzen ditu. Honek norberaren identitatea eta kultur-identitatea onik izatea dakar.

ERRESISTENTZIA ETA BERPIZKUNDEA

IAlek erresistentziarako eta berpizkunderako plataforma bat eskaintzen du: globalizazio ekonomikoari aurre egiten lagundu ekosistema eta komunitate osasuntsuak birsotzera bultzatzeko.

Gure ekintzen artean:

- **Kontzientzia zabaltzea** handituz doan merkatu globalaren eta finantzien liberalizazioak ekarritako demokraziaren, gizartearen eta ingurumenaren gaineko mehatxuen inguruan.
- **Informazioa partekatzea** ekonomia lokalizatzeke, indarberritzeko ahalmena berreraikitzeke, elikagaien segurtasuna indartzeko eta osotasun kulturala babesteko helburua duten ekimen anitzen inguruan.
- **Alternatiba lokalak sustatzea**, bai funtsezko bai politika mailan, oinarritzko beharrak (batez ere elikadura) beteko dituzten eskala handiko ekoizpenak bultzatzeko.
- Aniztasun kulturalaren eta biologikoaren garrantziaren gaineko **ulermena sustatzea**, garrantzitsuak bakerako, elikadura segurtasunerako, eta norberaren eta planetaren osasunerako.
- **Elkarlanak eratzea** munduko lokalismo ekonomikoak babesteko.

Lokalismoak bai Iparraldeko bai Hegoaldeko jendeak batu dezakeela uste dugu: enpresa-buruak eta sindikatuak, nekazariak, justizia soziala bultzatzen duten aktibistak, ekologistak eta indigenak. Denok batera itsaldiaren norabidea aldatuko duen mugimendu indartsuan parte hartu dezakegu, mundua hobetzeko helburuarekin.

Local Futures
www.localfutures.org

Itzultzailea: Naroa Garay Murua